

Urtarrilaren 16an  
**URTEAN ZEHARREKO 2. IGANDEA**

### **Agurra**

Gure onerako gizakien aurrean agertu zen Kristo izan bedi zuekin.

### **Sarrerako oharpena**

Eguberritan ospatu berri dugun misterioaren argiak oraindik distira egiten digula, gaurko igande honetan «**Munduaren argi!**» aitortzen dugu. Kristauak, familiar, lanean nahiz dabilen tokian, eredu ona eman behar du bere egintzekin; besteak Jesusi jarraitzera adoretuko dituen eta zoriontsu izaten lagunduko dien argi izanez.

Haur Misiolarien Jardunaldia dugu gaur; munduko haurrak elkar laguntzera eragiten dituen Ekintza da hau. Haurrak, misiolari izatera deituak dira. Eska dezagun lurreko haur guztien alde, bereziki gure otoitzaren beharrea direnen alde.

### **Damu-otoitza**

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, Itun Berriaren bitartekoa: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Elizaren Senarra: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Adam berria, kreazio berriaren lehen-semea: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

### **Otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure ardurapean dituzu zero-lurrak; entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza eta eman zeure bakea gure egunotan. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santurekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

## **Hitzaren liturgiari oharpena**

Zoriontsu ez dena, harrizko ontzi agor bat bezalakoa da. Jesu Kristogan bere poza aurkitzen duena berriz, ardo gozodun iturri ugaria bihurtzen da, guztien pozerako, norbere zorionerako eta Jainkoaren aintzarako.

## **Homiliarako argibideak**

ORDUA AURRERATU

### *Irakurgaiak*

Jaunaren bataioa eta haren misioaren unibertsaltasuna ospatu ondoren, Kanako ezteietan gertatu zen Jesusen agerpena gogoratzen dugu gaur. Bataioa iragarpena da, Kanako gertakaria, hasiera. Kanan hasitako Jesusen misioaren edukia eta emaitza aurkezten dizkigu Paulok: Espiritu Santuaren dohaina, Jesusek gu eraberritzeko eta gure bizitza alaitzeko darabilen ardo berria da. Lehenengo irakurgaiak berriz Jerusalem berreraikitzea iragartzen duten poematik hartua dago, gizadi osoaren salbameneren iragarpena da, Jesusek jada Betleemen hasitako salbamena.

### *Mezua*

Lehenengo ideia: Jesus, bere misioan erabat murgildua bizi da. Horregatik harrigarria da erantzuna: «Ez da iritsi nire ordua». Bigarren ideia: Mariak errespetatu egiten du semearen autonomia eta ekimena: «egizue berak esandakoa». Fedearen eta konfiantzaren eredu da. Mariaren fedea, fedea distiratzeko du eta horrexegatik prestatzen du munduan Jesusek duen egitekoa. Horra hirugarren ikasbidea: Mariaren fedea da Elizak gordea duen fedearen altxorra. Berak eusten gaitu eta berak garamatza konfiantzaz betea eta esanekoa den fedearen barne-ibilbidean. Bere fedea eusten du gurea. Honela prestatzen gaitu Jesusen egintza onartzeko eta Espiritu Santuari harrera egiteko. Bere hitza fedez

onartzen dugunean gugan egiten dituen miragarriak ikustean gehiago sinesten dute ikasleek Jesusengan. Maria da Kristoren egunsentia, gure fedea eutsiz eta hauspotuz Kristoren «ordua» gerturatzen du gure bizitzara.

### *Bizitzarako iradokizunak*

Iradokizun praktikoa eta garrantzitsua: Maria maitatzea bere fedea geureganatzea da, Elizaren jatorrizko eta sustraiko fedea baita; honela onartzen eta betetzen dugu Jesusen hitza. Mariak, «sinetsi zuenak... Jesusen hitzak gordetzen zituen bere bihotzean». Maria da Elizaren altxor mistikoa, Jesu Kristorekin bat egitera garamatzen barne-bidea, hitza entzuten eta obedientziaz eta maitasunez betetzen duen Elizaren irudi argia. Ikas dezagun Eukaristia Mariaren espiritu beraz lagunduta eta eraginda bizitzen. Jesusen presentziak, fedez onartua denean, bizitza erreala eraldatzen du, jende apalaren bizitza, familiartekoen eta lagunen pozak eta alaitasunak eraldatzen ditu. Gure bizitzan gertutasuna eta egiazko maitasuna eta benetako alaitasuna dugunean, Jainkoaren dohaina gugan ari da; espirituaren ardoak aurrerratu egiten digu zeruan betiko izango dugun otordua.

Hortik datorkigu Jesusekin batera «Munduaren argi!» izateko indarra. Ikas dezagula Jesus gure bizitzaren erdigune bihurtzen eta Haur Misiolarien Jardunaldiak gogoratzen digun bezala jabetu gaitezela zein misio ederrera bidaliak garen.

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadin mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzan haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren ateak zabal diezazkien eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurralde guztietako haurren alde: Jesusen berri ona aurkitzeko zoria izan dezaten, aurkituta leial bizi daitezen, eta leial izanik Haren lagun eta testigu ager daitezen guztiontzat.
- Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzan haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Zure esku, Aita, gure gogo eta eskariak. Egizu, gure jokabidea bat etor dadila eskatu dugunarekin. Sutu gugan zure Erreinua gauzatzeko gogo. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

Isuri gugana, Jauna, zeure maitasun-espirtua, bizia ematen duen ogi zerutar bat beraz janaritu gaituzunok bat izan gaitezen bihotzez maitasunean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

16 de enero  
**DOMINGO 2º DEL TIEMPO ORDINARIO**

**Saludo**

Cristo, que se reveló a la humanidad por nuestro bien esté con todos vosotros.

**Monición inicial**

Todavía deslumbrados por la luz del Niño Dios, celebrado en esta reciente Navidad, se nos invita en este día a verlo como «**¡Luz para el mundo!**». Un cristiano, en su familia, en su trabajo, en su ambiente, ha de ser ejemplo de buenas obras; ser como una luz que anime a otros a seguir a Jesús y que ayude a hacer felices a los demás.

Hoy es la Jornada de la Infancia Misionera; una Obra que promueve la ayuda recíproca entre los niños del mundo. En ella los niños son pequeños misioneros. Pidamos por los niños y niñas de toda la tierra, especialmente por los que más necesiten de nuestra oración.

**Acto penitencial**

Hermanos: para celebrar dignamente los sagrados misterios, reconozcamos humildemente nuestros pecados:

—Tú, intercesor de la Nueva Alianza: Señor, ten piedad.

—Tú, Esposo de la Iglesia: Cristo, ten piedad.

—Tú, Nuevo Adán, primogénito de la nueva creación: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados, y nos lleve a la vida eterna.

**Oración colecta**

Dios todopoderoso y eterno, que gobiernas a un tiempo cielo y tierra, escucha compasivo la oración de tu pueblo, y concede tu paz a nuestros

días. Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo, que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo y es Dios por los siglos de los siglos.

## **Monición a la liturgia de la palabra**

Quien no es feliz es como una estéril vasija de piedra. Sin embargo, quien encuentra su felicidad en Cristo, se convierte en una fuente abundante de bueno vino, para alegría de todos, para felicidad propia y para gloria de Dios.

## **Sugerencias para la homilía**

ADELANTAR LA HORA

*Los textos*

Después de haber celebrado el bautismo del Señor como proclamación de su misión universal, la liturgia nos hace recordar la manifestación de Jesús en Caná. El bautismo es el anuncio, Caná es ya el inicio. El texto de Pablo nos presenta el contenido y el resultado de esta misión de Jesús inaugurada en Caná: el don del Espíritu Santo es el vino nuevo con el que Jesús restaura y alegra nuestra vida. La primera lectura está tomada de los poemas que anuncian la restauración de Jerusalén, anuncio de la salvación de la humanidad entera que inicia Jesús desde Belén.

*El mensaje*

Primera idea: Jesús vive ya del todo metido en su misión. Responde a su madre de manera desconcertante: «No ha llegado ya mi hora». Segunda idea: María respeta la autonomía y la iniciativa de su hijo: «haced lo que él os diga». Es modelo de fe y de confianza. La fe de María irradia fe, y por eso mismo prepara la actuación de Jesús en el mundo. Esta es la tercera enseñanza: la fe de María es el tesoro de fe que tiene la Iglesia. Ella nos sostiene y nos guía en este camino interior de la fe, confiada y obediente. Su fe sostiene nuestra fe. Así prepara la acción de Jesús, la recepción del Espíritu Santo. Los discípulos creen más en Jesús al ver las maravillas que él obra en nosotros cuando recibimos su palabra con fe. María es la aurora de Cristo, sosteniendo y alentando nuestra fe anuncia y acerca constantemente «la hora» de Cristo en nuestra vida.

### *Sugerencias para la vida*

Una sugerencia práctica y muy importante: ser devoto de la Virgen es acogerse a su fe, que es la fe original y radical de la Iglesia, para aceptar y obedecer la palabra de Jesús. Ella es siempre «la que creyó», la que «conservaba las palabras de Jesús en su corazón». María es el tesoro místico de la Iglesia, el camino interior hacia el encuentro espiritual con Jesucristo, el icono de la Iglesia que oye la palabra y la cumple con obediencia y amor. Aprendamos a vivir la Eucaristía asistidos y ayudados por el espíritu de María. La presencia de Jesús, acogida con fe, transforma la vida real, la vida de la gente sencilla, las alegrías y los gozos de los familiares y amigos. Todo lo que en nuestra vida hay de cercanía, de amor verdadero y de auténtica alegría es don de Dios, el vino del espíritu que adelanta la alegría y la fiesta perpetua del cielo.

De ahí nos viene la fuerza de ser con Jesús «¡Luz para el mundo!». Aprendemos a hacer de Jesús el centro de nuestra vida y ser conscientes de la misión a la que somos enviados y que hoy nos recuerda la Jornada de la Infancia Misionera.

## **Oración de los fieles**

Con la confianza de hijos, con la esperanza de que Dios siempre nos escucha, dirijámosle nuestra oración de petición:

- Por la Iglesia, para que viviendo en paz y comunión sea signo de Dios en todo el mundo. Roguemos al Señor.
- Por los mandatarios de nuestro pueblo y de todas las naciones, para que Dios nuestro Señor ilumine sus pensamientos y tomen siempre decisiones que nos conduzcan a la paz. Roguemos al Señor.
- Para quienes se convierten, por quienes se preparan para recibir el bautismo, que siempre encuentren abiertas las puertas de la misericordia divina y Cristo los haga partícipes de su vida. Roguemos al Señor.
- Por los niños de todos los continentes, para que encuentren la buena noticia de Jesús, encontrándola le sean fieles, y siendo fieles se muestren ante todos como sus amigos y testigos.
- Por nuestros familiares y amigos que hoy no están con nosotros, que Dios escuche sus oraciones y les ayude en sus buenos propósitos. Roguemos al Señor.

En tus manos, Padre, ponemos nuestros deseos y peticiones. Haz que seamos coherentes con lo que hemos pedido. Alienta nuestros esfuerzos por hacer presente tu Reino. Jesucristo nuestro Señor.

## **Oración después de la comunión**

Derrama, Señor, en nosotros tu Espíritu de caridad, para que hagas vivir concordes en el amor a quienes has saciado con el mismo pan del cielo. Por Jesucristo nuestro Señor.